

# IAZ 1999.URTEKO SANTO TOMAS EGUNEKO BERTSO JAIALDIAREN KRONIKA

## Xenpelar Bertso Eskola

Urte hagitz lanpetua izan dugu 1999.urtea. Herrian zehar bertsolaritza hedatzen gogotik saiatu gara. Alde batetik urtero ohiko den lanari aurre egin behar izan diogulako, bertsolaritza ikastaroa, Madalenetako urteroko bertso saioa, Santagedako koplagingintzan, Santo Tomaseko jaialdia... beraz horrena guztia gutxi balitz, Gipuzkoako 99.eko bertsolari txapelketako-

an erronkari aurre egiteko ausardia izan dute Xenpelar bertso eskolako sei gazteek. Txapelketa horren berri beste leku batean agertuko da "Oarso" honetan, Jon Ansak egingo duena hain zuzen.

Bertsozalearen omena da aurtengoan egin ez duguna, lanak trumilka etorri baizitzaigun 1999.ekoan.

Denari ezin aurre egin eta hori izan zen utzi genuena 2000. urte honetan egiteko; beraz aurtengoa ez dugu joaten utziko "bertsozalearen" omena egin gabe.

Goikoaz ganera 1999.urteak zerbait gehiago ekarri zuen Xenpelar bertso eskolarentzat: urtero bezala Santo Tomas egunean bertsopaper lehiaketak burutu ziren, bat "XI. Zafirain Anaiak" helduen sailekoa noranahikotua mugarik gabe 18 urte-tik gorakoentzat.

Gazteen (17 urte arteko) saileko bertsopaper lehiaketari berriz, berrikuntza ezarri diogu: "Ibon Zabala" izena ipintzeaz ganera, "Oiarsoaldea" izenez ezagutzen dugun barruti honetako lau herrietara, Pasaia, Lezo, Oiartzun, Errenteria-Ore-retara, mugatua izan da, geure inguruko gazteei aukera berri bat eskaintzearen; nagusiki bertsolaritzaren zaletasuna bultzatu asmoz geure inguru hurbileneko gazteen artean. Beraz aurrerantzean ere bide hori jorratuko dugu, onak dira "urru-



Maidera eta Arantza trikitilariak, jaialdia musikaz alaitzen.

Xabier Amuriza, Jokin Sorozabal, Jon Maia, Igor Elorza, Josu Oiarzabal, Mikel Aginaga, (azken bi hauek Xenpelar bertso eskolakoak) eta Antton Cazabon.





## “ZAPIRAIN ANAIK” HELDUEN, XI. BERTSOPAPER LEHIAKETA

Irabazle: Jon Ansa Mendizabal (Xenpelar bertso Eskolakoa)

Izena: “Bandera Zuririk ez Kosovon”

Doinua: Habanera



Argazkian, Jon Ansa bere bertsopaperak kantatzen.

tiko intxaurrak”, eskuragarriagoak aldiz “bertakoak” eta, hau da hain zuzen geure helburua, ikastetxe, ikastolak eta ahal duten guztiak bertso zaletasunaren helburu hori hedatzen hori hedatzen laguntzea, erne egon gero! 2000. honetan bertsopaper deialdiari erantzuteko, “Oiarsoaldeko” gazteak.

1)  
Kosovotik heldu dira  
nahigabezko oihartzunak,  
ze hurbiltasuna duen  
hango bonba hots hurrinak!  
milaka zenbatu arren  
hilak eta alargunak,  
zalantzas beteak gaitu

informazio hutsunak:  
zein dira biktimak eta  
zein oster errudunak?  
nahiz eta ez gaituen pozten  
Milosevic jardunak,  
zintzoagoak ez dira  
NAToko abioidunak.  
Gure etsaien etsai dira.  
Baina ez gure lagunak.

2)  
Oh, Kosovo lur emankor  
oh, Kosovo lur oparo,  
gogor gailendu zaizkizu  
Washington eta Belgrado,  
bonba bihurrien eta  
gezur maltzurren esklabo,

pantailatxoan egia  
ez ote zaizu arraro?:  
“Laguntza behar duzue,  
zuek bakarrik akaboz,  
Osaba Samen ondoan  
denbora lasai igaro”,  
saldu diguten gezurra  
sinisterikan ez dago,  
Milosevic txarra bada  
NATO ez da gutxiago.

3)  
Kurdistango egoerak  
ez ditu asko larritu,  
Iraken egin zutena  
oraindik ez da argitu,  
Euskal Herriak ezetza...  
Baina ez zuten aditu,  
Palestina ere berdin,  
ta zertarako jarraitu?  
Gaur Balkanetan zaindari  
zerrenda ezin amaitu,  
Yankeearen ironiak  
bihotzean mindu gaitu,  
Kosovon egin dutenak  
badu nahikoa “meritu”,  
Herrien kontra sortuak  
Herriak askatzen ditu.

4)  
Zerura jarria dago  
Jugoslaviaren soa,  
odei beltzek eusten dute  
haundi-maundien pausoa,  
Balkanetako paisaia,  
ze karamelu gozoa  
Amerikak luza dezan  
justiziaren besoa,  
genozidio gordina  
eta aire eraso,  
bitatik bat hautatzea,  
hori ez da arazoa,  
onartu ezina baita  
bi aldeetan jazioa,  
Batek herri bat hautsi du  
Besteak mundu osoa.

5)  
Cure mundu txiki hontan  
lagunak zer parabola  
pastela denen artean  
ezin banatu inola,  
izan zitekeen Korea,  
izan zitekeen Angola.  
Balkanetan tokatu da  
Etxe-zuriko tonbola  
munduan jabe bihurtu  
nahi badute edonola,  
Kosovoarren bizitza  
NATOkoei bost axola!  
bihotzean hautsa dute  
kontzientzietan odola,  
Lo egin badezakete  
Jakin nahiko nuke nola.

6)

Komunikabidetatik  
nahiz mila berri zabaldu,  
benetan gertatzen dena  
ez dute inoiz azaldu,  
“Irratiak hura dio.  
Telebistak hau esan du”,  
egiaz jabetzen diren  
azken tontoak gera gu,  
“Gaurkoa garbi joan da  
akats txiki batzuk salbu  
izan gaitezen ulerkor  
ta izan gaitezen malgu”,  
denen alde dabiltzala  
nahiz erraz diguten saldu,  
Clintonek irabazten du  
Ta beste guztiok galdu.

7)  
Negoziazioa da gerren  
egur bereko enborra  
bien arteko eskontza  
ez al da gero gogorra?  
CNN babesle  
Kokakola esponsorra,  
Dirua da historia  
mugitzen duen motorra,  
Wallstreeten eduki arren  
paregabeko altxorra  
kasu honetan txekex  
ez dute nahikoa horra.  
Garestiako baita  
merezki duten zigorra,  
Dolarrez ez da ordaintzen  
Herri batekiko zorra.

8)  
Denok sartu nahi gaituzte  
sistemaren eskemetan  
herrialde eta gure  
arteko harremanetan,  
Kosovoarrek sufritu  
dute beraien zainetan,  
Amerikak bere “alde”  
egindako azainetan  
porrota baita nagusi  
bonbazko garaipenetan,  
nahiz gerra amai liteken  
hiruzpalau egunetan  
Yankeeen diru gosea  
bukatu arte benetan  
Bandera zuririk ez da  
izango mundu honetan

“CLIN-TONIK”





Argazkian, Arkaitz Oiarzabal bere bertsopaperak kantatzen.

## **“IBON ZABALA” GAZTEEN, I. BERTSOPAPER LEHIAKETA**

Sail honen lehen saria, hutsean utzi zuen Epai-mahaiak, beraz hemengo bertsoak bigarren saria irabazitako bertsopaperak dira.

Irabazlea: Arkaitz Oiarzabal Zapirain (Xenpelar bertso eskolakoa).

Izena: “Euskal Herriko urte zaharrei begira”.

Doinua: Aita izena / kanta beharra.

1)  
Sorta hasten dut sentimentuak  
zuzendu Euskal Herrira  
zeren Espainak nazketu gaitu  
sortuz mila tira-bira:  
Hildako asko, ta euskaldunak  
murriztu gara erdira  
baina nahiz lehengo abertzaleak  
zahartu, bada segida  
ea guk zerbait aldatzen dugun  
garai berriei begira.

2)  
Euskal jendeak, bizi izan zuen  
egoera oso latza  
nahiz eta batzuk izan bazuten  
heurengan hainbat zalantza.  
Franco jaunaren gaztelaniak  
ekarri zigun kiratsa,  
beti kanpotar tiro artean  
egiten genuen dantza  
baina gu ere zerbait bagara  
etzagun gal esperantza.

3)  
Nahiz ta urtean badihoazen  
hau egoera eskasa,  
zaila da eta hau da tristea:  
ezin hartua konpasa  
Hainbeste urtez gertatu dena  
ez ote dugu demasa?  
jaunak hau ez da kontakizun bat  
jaunak ez da jolasa:  
bertan bait doa gure odola  
izate eta arnasa.

4)  
Espainiarrek beraz zeukaten  
Euskadi ondo hezia  
urte haietan galdu baitzuen  
euskaldun askok bizia.  
Abertzaleak lortu nahi zuten  
gure independentzia  
loratu zaigu bakan horiek  
lehen ereindako hazia  
eta betetzen ari da orain  
lehen amets ikusia.

5)  
Mina besterik ez dut ikusten  
atzera begiratzean;  
min hori poza bihurtuko da  
aro berrian sartzean,  
horra urrengo milurterako  
zer nahi dudan hotz-hotzean;  
aspaldidanik daramaguna  
gure bihotzen ertzean,  
behingoz Euskadi libre bat eta  
preso guztiak etxean.

MATTIN